

M I G U E L A N G E L B L A N C O R E N H E R I O T Z A

ETA eta Ezker Abertzalearekin une batetik bestera amaitzeko aukera zabaltzen ari den giro hori faltsua da. Baina inoiz ez dela ETA eta HBren aurkako horrelako giro gogorrik bizi ere egia da. Lurrikara politiko honetan hoztasuna eta zentzua izango duen jendea beharko da alde bietan.

IZAN BEHAR DU ATERABIDERIK

Iragarritako heriotzaren kronika etengabea bizi izan dugu egun hauotan Euskal Herrian eta gerra doinua eta odolaren usaina barreiatu dirakaleetan zehar. Ohituak gaude «aspaldian bizi gabeko giroa» eta horrelako gauzak idaztera baina kasu honetan egiazkoa dela ere esan liteke (eta akaso bizi gabekoa ere esan liteke). Hots, gatazka 'in crescendo' doa. ETak hil izan ditu bahituak aurretik ere baina ez horren epe motzean eta, batez ere, ez komunikabideek populazioari horren errealki bizi araziz. Ryan edo Barrios kapitainaren heriotzek ere gizartea astindu zuten, baina orduan ez ginen minutua bata bestearen atzetik heriotzaren zain egon. Zentzu horretan —eta herritarren erreakzioa gutxieteko inongo asmo barik— komunikabideen indar mediatikoa inoiz bizi izan duen indarririk handienarekin azaldu da gatazkan.

Itsua ez denak argi ikusi du, indar mediatikoen tartekatze barik ere, gertakizun-

nek kolore guztietako herritarrak astindu dituztela. Lehenago ere bai baina oraingoan inoiz ez bezala.

Dena den, astindua gauza bat da eta ezustekoa beste bat. Iragarritako hilketaren kronika egin den legez, iragarritako egoeraren kronika ere egiten ari gara. Iragarpenak, baina, ez gaitu kolpatzen, bera gauzatzearan dator aienea. ETak eta Ezker Abertzaleak oro har, presoak Euskal Herri-

▣ Airean geratzen dena da, ETA noraino heltzeko eta zer egiteko prest dagoen tentsionatze bide horretan

tzearen aldeko borrokari ekin ziotenean helburuaren lorpenean dena emateko presutasuna agertu zuten eta horrela interpretatu ez bada oker galanta egin da. Hoztasunetik aztertuta, arrazoi askorengatik horren samurra ez dena, presoek Euskal Herriatzea eta Miguel Angel Blancoren heriotza banaezinak dira. ETak Ortega Lara

532 egun bahituta mantendu zuen moduan mantendu bazuen, Guardia Zibilaren askapen operazioaren ondoren beste zerbait etorriko zela esperotakoa zen.

ETAren aldetik euskal gizartea tentsionatzeko azken urteotan egin den saiorik gogor eta kalkulatuena izan da Alderdi Popularreko zinegotzi gaztearena: 48 ordu euskal eta espainiar populazio guztia dantzan edukitzea. Baina helburua hori zen, eta komunikabideek ere akaso horretan lagundu egin diote. «Egin»en Mariano Ferrer eta Martin Garitanorekin ETak emandako elkarrizketan argi zioen, euskal eta espainiar gizartea baldintzatzeko indarra zuela. Eta, ikusten den legez, eduki badauka.

Airean geratzen dena da, ETA noraino heltzeko eta zer egiteko prest dagoen baldintzatzeko hori gauzatzeko. Eta ez hori bakarrik, baita noraino utziko dioten edo heldu ahal izango den ere. Gatazka Euskal Herrian, indar handiago edo gutxiagorekin, luze iraun dezake eta, oraingoz behintzat, ETak berritzeko gaitasuna erakusten du. Urteen iragapenak hori horrela dela erakusten du. Errealitate odoltsuak eta mingarriak ere bai.

Baina gatazkaren ikuspegi orokorretatik atera eta une zehatz honetan murgilduz, orain ETak bere presoek eremuari hil ala biziko doinuan heldu dio. Eta honetan ez dago denborarik, preso batzuek 19 urte betetzera doaz eta horietatik gehienak sakanatuak eta baldintza gogorrenetan. Pulstu honetan oso urruti heltzeko prest dagoela ere erakutsi du ETak. Baita PPreneko Gobernuak ere, Ortega Lararen kasuan zerbait egitea Blancorenean baino askoz samurrago zuenean ez zuen egin eta horrek esan gura du ETA eta Ezker Abertzalea garaitzeko zihurtasuna ikusten duela.

Presoena batasun eta sufrimendu ikurra da Ezker Abertzale osoarentzat, so egile xumeenak ere badaki hor zatiketa gogor bat lortuz gero egoera oso aldapa goran jarriko litzaiokeela egungo Ezker Abertzaleari.



■ Miguel Angel Blanco Lasarten zauritua agertu zen lekua.

ANDER GILLENDA / EGUNKARIA



■ Lasarteko Industrialdearen ondoan egin zizkioten lehenbiziko azterketak

Kolektibo horren zatiketa izan da Espainiako Estatuaren estrategia tinko eta gogorenetakoa bat, eta kolektibo hori pertsonen osatua dago. Orain arte presoek tinkotasunez eutsi badiote ere, denboraren iraganak horrela izango ez dela iragar dezake. ETAK eta Ezker Abertzaleak, beraz, presa dute presoen egoera jasanezinari irtenbideren bat emateko, hil ala biziko borroka batera eramaterainokoa akaso. Baina, ikuspegi gizatiar batetik at, gatazka honen irtenbideari ekiteko gune aproposa ere izan zitekeen eta izan liteke.

ZUBIGINTZA. 1981ean hil zuen ETAK Ryan, Joseba Arregi ere urte horretan hil zuten torturaz, 'Tejerazoa' ere ordua da. Hipercor 1987an. 1992arri begira Madrilen bonba-automoz egindako atentatuak, aurtengo otsail beltza... Ziklikoki gertatzen diren egoerak dira, bakoitzean erreakzio gogorrak sortuz. Aurreko horietan legez, oraingoan ere baretuko dira urok, baina egun hauotan gizartea eta herritarren erreakzioa desberdina izan da, ETaren ekintza hau herritarren bihotzeraino heldu da eta ekintza zuzena—HBren aurkakoa— ere azaleratu da zenbait sektoretan. Komunikabideen auspoak ondo xaxatutako min eta amorrua. Herri Batasunaren aurkako lintxamendurako giro prestaketa nabar-



■ Egunduan hauek jendetza handia atera da kalera ETA gaitsetziz.

mena da eta gainera Espainiako Gobernuaren estrategia gogorrean ezinbesteko osagaia (nahiz eta ahoz bestelakorik esan): populazioaren presio fisikoa gogorra sentiaraztea, hori da pausoa. Eta iragan asteburuan eta egun hauetan hori lortzen ari dira.

Oldartzen estrategiak atzean duen guztiarekin, gizartea tentsionatzea lortu du Ezker Abertzaleak, eta hori bide egokiaren seinale gisa interpretatu da. Baina tentsio unean indarririk handiena duenak eramaten du baloia berarekin eta horretan, orain ikusten ari garena ikusita, baloia Ezker Abertzalearen teiltura joteko joera du. Zerbaitetan irabazteko indar harremanei so egitea ezinbestekoa da eta tentsionatzeko gaitasunak ez du esan gura azkenean baloia eramango denik.

Korapilo honetatik nola atera, hor dago gakoa. Giroa bere onera itzultzean —hala bada— alde bietatik egon beharko du hausnarketa sakona egin eta egoera bideratzeko gutxieneko baldintza batzuen alde egingo duenik. Presoen gaia horren leherkaria izanik, Ajuria Eneko Itunetik keinuren bat egitea ezinbestekoa da. Ajuria Eneko Mahaia osatzen duten guztiak ez

■ **Argi ikusi da PPKo zinegotziaren inguruko gertakizunek kolore guztietako herritarrek astindu dituztela**

dira berdinak —sarritan hala ikusarazi gura bada ere— eta zirrikitu horietatik Mayor Orejaren ereduari galga jarriko dionik ataraztea premiazkoa da. EAEko Giza Eskubideen Batzordeak zerbait egin daitekeela erakutsi du eta une honetan egiten zuen lana eta gehiago egitea tentsio desaktibatzailerantzizua izan liteke.

Beste horrenbeste Ezker Abertzalean. ETAK, tentsioa uneei eusteko gaitasuna behin eta berriro erakutsi badu ere, behin



■ Familiak eta lagunek azken agurra eman zioten hilerrian.



■ Bere lagunek eta alderdikideek eraman zuten hil-kutxa Ermuan.

ere ez du bizi izan horrelako aurkako gitorrik. Baina gizartearen presioaz gain, Ezker Abertzaleak era honetako ekintzek sortzen dizkioten barne kontraesanari ere egin behar die aurre. Patxi Zabaleta, Ermuko HBko zinegotzia, eta Tafallako LABek, besteak beste, izandako erreakzio publikoak ere kontuan hartu beharko ditu. «Gutxiago baina gogorrago» teoria praktikan gauza daitekeen arriskuari aurre egin beharko dio ETAK.

Ajuria Eneko Itunak indar harremanak bere alde ditu baina, epe ertainera behinik-behin ez du ETArekin amaitzeko gaitasunik ere ez. Edukita ere, Ajuria Eneko Itunak berak onartzen duen legez, sakonean arazo politikoa dago eta zauriak ondo itxi ezik arazoa berpizteaz gain, epe laburreko giroa arnastezina egingo luke. Zubigintza da, isilik eta eraginkortasunez, egungo paronama politikoan birkokatu behar den kontzeptua ●

◆ XABIER LETONA



■ Felipe printzeak, Aznarrek eta Ardantza lehendakaria hiletetan izan ziren.